



5.ZIRKULARRA

2019-20 Denboraldia

ERREGIONALEN OHOREZKO LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak, aurtengo denboraldiko Erregionalen Ohorezko Liga lehiaketa antolatu du, honela:

1) KLUB PARTAIDEAK

Hernani C.D.; Real Unión Club S.A.D; Euskalduna S.D.; Oiartzun K.E.; Zarautz K.E.; Beti Gazte K.J.K.E.; Mutriku F.T.; Amaikak Bat K.E.; Mondragon C.F.; Aretxabaleta K.E. UDA; Añorga K.K.E.; Bergara K.E.; Ordizia K.E.; Elgoibar C.D.; Eibar Urko S.A.D.; Urola K.E.; Touring K.E. eta Anaitasuna C.D.

2) LEHIAKETA SISTEMA

Talde bakar batean, puntuen bidez eta bi itzulietara jokatuko da. Guztira 34 jardunaldi.

-Lehen sailkatutakoa **igoko da** Hirugarren Mailara. Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako bigarrenek igoera promozioa jokatuko dute, Hirugarren Mailako IV. taldetik Bigarren B Mailara igotzen eta Bigarren B Mailatik Hirugarren Mailako IV.taldera jaisten den talde kopuruaren arabera lehentasun hurrenkera bat edukitzeko. Eta edozein kasutan Espainiako Futbol Federazioko Araudi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.

-Gorengo Mailara azken lau sailkatuak **jaitsiko dira**.

3) IRAUPENA ETA ALDAKETAK

90 minutu, bost aldaketa eta gehienez zazpi ordezko eserlekuan.

4) ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek, posible izango dute beraien partidua larunbata arratsaldera aurreratzea, 15:30etik aurrera, aurkakoaren baimenik gabe.

5) DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehendabizi, Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenaz, Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

6) XEDAPEN OROKORROA

Gipuzkoako Futbol Federazioko Batzar Nagusian erabakitakoa gogorarazten dizuegu:

- 1) “Koltxoi” maila izateko irizpidea mantendu Erregionalen Ohorezko Mailan.
- 2) Erregionalen Ohorezko Mailan sor daitezkeen plazak ondorengo eran eta hurrenkeran beteko dira:
 - a) Gorengo Mailako talde bat igota.
 - b) Erregionalen Ohorezko Mailatik jaitsitako taldeen artean hobeto sailkatu denaren jaitsiera saihestuz.
 - c) Eta horrela behin eta berriro

Donostia, 2019ko abuztua.
GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

-Lehendakaria-
Juan Luis Larrea Sarobe